

## ERAKUSLEAK

Batzordeko idazkari naizenez, bi hitz egin dezadan eskatu didate, gainerako formak bazterturik honako hauek onartzeko batzordeak izan dituen arrazoiak agerian ipiniz. Diodan lehenik Alvarez Emparanza ("Txillardegi"), Xabier Kintana eta hirurok ginela batzordeko. Eta gero, formarik gehienak finkatzen lan ttikia izan dugula, nabari baitzen aukeran zegozkeen gainerakoak baino zabalduagoak edota jatorragoak, edo biak batera, zirela honako hauetatik zenbait. Dudamudazko izan zitezkeen (eta euskaltzain osoek birrets ditza ten arte, daitezkeen) forma batzuk aipatuko ditut, beraz, soil soilik.

Singularrekoei nagokiela, *hark* onartu dugu, ez *harek*, biak aski ezagunak eta erabiliak izanik ere, lehena bakarra agertzen baita antzinako idazle guztiengan.

Leku kasoetan *honetan*, *horretan* eta abar *-e-* dutelarik, hobetsi ditugu, hirugarrenean ezik: *hartan*, *hartako* eta abar, alegia. Orobat *honetaz*, *horretaz*, *hartaz* instrumental delako kasoan, horien ondoan *honez*, *horrez* eta *harez* ere sarturik, halaz ere, *honez gain*, *harez gero* eta hauen antzekoak esateko; *-taz* iruditu zaigu, beraz, egokiena, zaharrena ez bada ere, eta horrenbestez *-zaz* eta *-tzaz* baztertu ditugu.

Bizidunen kasoetarako *-n-* duten formak proposatzen ditugu, hots, *honengan*, *horrengan*, *harengan* eta berebat horien kideetan. Ez, ordea, kausatiboan, zeinetan hobe eritzi baitiegu *-n-* gabeei: *honegatik*, *horregatik*, *hargatik*.

Adlativo kaso eta oihu gisakoa ("Ecce homo") bereiztearen aldeko zen norbait, *honera etorri da* eta *hona hemen*,

alegia; baina azkenean bateratzea hobe zela, antzinako idazleengan ez dela bereizkuntzarik agertzen eta batera ematen ditugu; *hona, horra, hara*, beraz, batean nahiz bestean.

Moduzkoetan ere, lekukoetan bezalaxe, *-e* duten formei hobe eritzi diegu: *honela, horrela*, baina *hala*, lehen *hartan* bezalaxe. Zenbait esapidetarako, haatik, *hola* ere onartzen da; *hara nola, hola-hala* eta *hala-holako gizona*.

Pluralekoetara gatozela, are aukera gutxiago zen formen artean eta geure artean ere zalantza ttikiagoak izan ditugu. Batetan izan ezik: aktiboa eta pasiboa bereizi, bai ala ez? Hirurotako bat kontrako zelarik, baina hark ere gehiengoari amore ematen ziolarik, ez bereiztea erabaki dugu eta horrenbestez *honela* gelditu dira: *hauek, horiek, haiek* aktibo nahiz pasivo. Arrazoia, besteak beste, hau litzateke: oraingo euskaldunen artean ez ezik, euskal literatura osoan, zuberotarrek bakarrik egin izan dute, eta egiten dute, bien arteko bereizkuntza; ez Etxeparek, ez Leizarragak, ez Axularrek, ez Ziburuko Etxeberrik, bai, ordea, Oihenartek, antzinakoen artean.

Horrez gain, eta singularrean ez bezala, kausativo kasoan *-n* duten formak hartu ditugu, *hauengatik* eta abar, alegia, Oihenartek eta bestek *horiegatik* badiote ere eta egungo egunean biok esaten eta idazten diren arren.

Azkenik deiktiko direlakoetan ez gara sartu eta oraingoz erabaki gabe gelditzen da, esate baterako, *honexen* ala *honenxe, honexegatik* ala *honegatixek*, zeinek behar lukeen euskara batuan.

Hona, beraz, ondoren batzordearen proposamena:

*Patxi Altuna S. J.*

## ERAKUSLEAK

hau	hori	hura
honek	horrek	hark
honen	horren	haren
honi	horri	hari
honekin	horrekin	harekin
honetan	horretan	hartan
honetako	horretako	hartako
honetara	horretara	hartara
honetatik	horretatik	hartatik
honetaz	horretaz	hartaz
honengan	horrengan	harengan
honengana	horrengana	harengana
honengandik	horrengandik	harengandik
honegatik	horregatik	hargatik
honentzat	horrentzat	harentzat
hona	horra	hara
honako hau	horrako hori	harako hura
honez	horrez	harez
honela	horrela	hala
honelako	horrelako	halako
hemen	hor	han
hemengo	horko	hango
hemendik	hortik	handik
hauek	horiek	haiek
hauek	horiek	haiek
hauen	horien	haien
hauei	horiei	haiei
hauekin	horiekin	haiekin
hauetan	horietan	haietan
hauetako	horietako	haietako
hauetara	horietara	haietara
hauetatik	horietatik	haietatik
hauetaz	horietaz	haietaz
hauengan	horiengan	haiengan
hauengana	horiengana	haiengana
hauengandik	horiengandik	haiengandik
hauengatik	horiengatik	haiengatik
hauentzat	horientzat	haientzat
hauez	horiez	haiez



## OHARRA

Euskaltzaindiak bi txandatan onartu zuen Erakusleen proposamena: Otsailaren 23ko batzarrean Donostian, eta Uztailako 20an Elizondon.

Aurreko zerrenda onartu zuen, xehetasun hauek gaineratuz:

a) *Hauek, horiek, haiek*, bai nominatibo eta bai ergatibo kasoetan erabiltzea erabaki zen.

b) *Hone(n)gatik, horre(n)gatik, hare(n)gatik* era honetan eman ziren ontzat. *Hargatik*, bizigabea denerako ontzat eman zen, halere.

d) *-taz, -zaz*: biak onartu ziren; *-taz* ageri da zerrendan, baina *honezaz, horrezaz, harzaz; hauezaz, horiezaz, haiezaz* ere ez dira gaitzesten. Ilatibo bezala, *hortaz*.

e) *-tatic, -tarik* bi formak uzten dira oraingoz, deklinabideko batzordeak erabakia har dezan.

f) *Hona, honera*: ez da onartzen bikotasun hori; *hona, horra, hara* baizik, soil-soilik.

g) *Hola-hala* eta horren antzeko esaeretan *hola* forma onartzen da. Era berean *hala-holako* eta esateko.